MUNDUENEA
MUNDUKO IPUINEN ETXEA

DORTOKA ZEKENA

IJAPA OLOJUKOKORO



LABAYRU FUNDAZIOA

AUDIO LIBURUA

IPUINA ENTZUN

E GBO ITAN NA

Munduenea, munduko ipuinen etxea online

www.munduenea.labayru.eus

© LABAYRU FUNDAZIOA. 2022
EDITOREA: LABAYRU FUNDAZIOA (ZIORTZA ARTABE, IGONE ETXEBARRIA, AKAITZE KAMIRUAGA ETA BIOSNE ZARANDONA)
COLON DE LARREATEGI 14, 2. ESK. 48001 BILBO
WWW.LABAYRU.EUS

JATORRIZKO TESTUA ETA AHOTSA: DIANABETH AKEJU, QUINNDY AKEJU
JATORRIZKO TESTUAREN ZUZENKETA ETA AHOTSA: GRACE ADIJAT AKINOSI
TESTUEN MOLDAKETA ETA AHOTSA EUSKARAZ: YOLANDA ARRIETA
ILUSTRAZIOAK: ENRIQUE MORENTE
MAKETAZIOA: BIKO KOMUNIKAZIOA
INPRIMATEGIA: GERTU
I.S.B.N: 978-84-19063-14-4
LEGE GORDAILUA: BI 01395-2022

LAGUNTZAK: EGITASMO HONEK BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN ETA EUSKO JAURLARITZAREN LAGUNTZAK JASO DITU.

Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.cedro.org, 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

DORTOKA ZEKENA



IJAPA OLOJUKOKORO

LabayruFundazioa

HIZTEGIA
FOKABULARI

- Zeken = Olojukokoro
- Txakur = Aja
- Dortoka = Ijapa
- Zahar = Arugbo
- Lagundu = Iranlowo
- Danbor = Ilú
- Apeta = Ohun ti mofe
- Ostu = Olejija
- Itzuli = Dapada
- Barkatu = Idarijin

Jorubera Joruba etniakoek hitz egiten dute, batez ere, Nigerian, Beninen eta Togon. Ipuin hau nigeriar emakume biri batutakoa da. Nigerian 500 hizkuntza baino gehiago daude, baina herritarrek lau hizkuntza nagusi erabiltzen dituzte: jorubera (%21), igbo, hausa eta kanuri. Dena dela, ingelesa da hizkuntza ofiziala eta eskoletan nagusia.

Yoruba je ede abinibi ti awon Omo yoruba ma so, to de je ede ti o wa kakiri orilede Nigeria, Benin ati Togo. Itan yi o da lori awon ara birin meji to je omo orilede Nigeria. Ni orilede Nigeria, ede orisirisi lo wa ni orilede Nigeria ti o ju 500 akosile lo, ninu gbogbo awon ede no, ede merin to se pataki ninue ni: yoruba (21%), Igbo, Hausa ati Kanuri, sugbon ede oyinbo ni ede osise ati ede ti won ko ni ile iwe.


EUSKAL
HERRIA
BENIN
TOGO
NIGERIA



Nigeriako Oyo herrian, andre zahar bat zihoan oinez etxerantz, buruan karga astuna hartuta.

Txakurrak eta dortokak ikusi zuten. Txakurrak Iroko zuen izena, eta dortokak Ijapa.



Ni ilu kan ti won pe ni ilu Oyo, iya arugbo kan
rin lo si ile re pelu eru lori e.
Aja ati Ijapa si ri Iya arugbo na. Oruko aja ni Iroko, ati oruko
ijapa ni Ijapa.





—Andre gaixoa! —esan zuen txakurrak—. Lagunduko diogu?

—Iya, se a le ronyin lowo? —ni aja wi.

—Ez dut horretan denborarik galdu nahi —erantzun zuen dortokak.

—Adinekoei lagundu egin behar zaie, Ijapa! Hori irakatsi digute! Ez dute izaten gazteok beste indar gauzak eramateko!


—Mi o fe padanu akoko —ijapa da lohun.

—A ni lati ran awon agbalagba lowo Ijapa! O jẹ ohun ti a ti kọ! WIipe Awon agbalagba won ko ni agbara pupọ bi awọn odo lati gbe eru wiwo!









Dortoka patxadatsu jesarri zen; beraz, txakurra bera bakarrik joan zen andrearengana.

—Ekarzazu, andrea, neuk eramango dut.

—Ene! Mila esker, txiki!

—Ez horregatik!

Ijapa si joko pelu ifiokan bale, aja nikan si lo ba Iya arugbo na.

—E fi sile, Iya, mo le ba yin gbe eru na.

Iya na si da aja lohun: “ Ose, omo mi!”

Aja da Iya lohun pe: “Ko to o pe!”



Etxeko atarira heldu zirenean, andreak esan zion txakurrari:
—Joruben kulturan saria ematen diogu laguntzen digunari. Zatoz!

Nigba ti won de enu ona ile naa, obinrin naa so fun aja naa pe:
—Ni ile yoruba, a ma a fun awon ti o ba ran agbalagba lowo nikan.
Tele mi kaalo!



Gela ilun batean sartu ziren. Argia piztu eta, tamaina desberdineko hiru danbor!

—Hartu nahi duzuna —esan zuen andreak—. Zerbaiten apeta duzula sentitzen duzunean, jo danborra hiru aldiz eta gauzatu egingo da.

Wọn wọ yara dudu kan. O tan ina ati ilu meta otooto ni o wa nibe.

—Gbe ohun ti o fẹe —o sọ—. Nigbati o ba rilara pe o ni ife, lu ilu naa ni igba meta ati pe ife re yoo se.




—Eskerrik asko, andrea!
—Ez horregatik!
—Aja: Ese, iya!
—Iya: Ko to o pe.





Handik gutxira, gosetea heldu zen Oyora. Txakurrak, aldiz, janarian pentsatu, danborra hiru aldiz jo, eta nahi zuen hura agertzen zitzaion eskuartera.

Horrela bada, nabarmen hasi zen potolotzen.

Nigbati o se die iyan mu ni ilu Oyo. Sugbon ni igbakigba ti aja ba fe jeun, yio lu ilu na ni e mẹta, ohunje na yio si to wa.

Nigbati o ya aja bere si ni sanra.



Dortokari deigarri egin zitzaion: «Herritarrak gose eta nire laguna lodi: nola da hori?»

Beraz, zuzen-zuzenean galdetzea erabaki zuen.



Ni Igbana ni ijapa fura: «o si wipe gbogbo eniyan ti o wa ni ilu Oyo ni won ki gbe fun ebi: bawo o ni lo se le ri be?» Sugbon o pinu lati bere lowo aja wipe bawo ni o se se ti ebi ko fipa.



Orduan, txakurrak danborrarena kontatu zion.
—Ea, utzi niri!

Nigbana, ni aja so fun ni pa ilu naa.
—Fi fun mi!



Dortokak danborra jo, eta janaria agertu zen.

—Baina zergatik aukeratu zenuen hiruretatik txikiena, Iroko? —galdetu zion lagunari.

—Bada, andreak eman zidanarekin pozik nengoelako.

Ijapa na si lu ilu, ounje si farahan.

—Sugbon kilode ti o yan eyi ti o kere julo ninu awon meta, Iroko? —o beere lowo ore re.

—Nitoripe inu mi dun si ohun ti Iya naa fi fun mi.



Baina dortoka ez zen erantzunarekin gustura geratu.

—Danbor handiarekin jatetxe bat ireki ahalko zenuke, eta aberastu!

—Esan dizut, Ijapa. Ez dut gehiago behar.

Sugbon sibe ijapa ko ni telorun ninu esi ti aja fun.

—Pelu ilu nla naa o le sii ile ounje kan ki o si ni oro!

—Mo ti so fun e tele, Ijapa. Emi ko nilo die sii.




ILE ONJE



Baina dortoka ekin eta ekin.

—Irokok hartu ez badu, danborra libre dago!

Sugbon sibe ijapa je eleti kukun.
—Ti Iroko ko ba gbe, ilu naa a je wipe ilu na wa nibe!



Dortoka andrearen etxera joan zen, eta danbor handia ostu zuen.

Bueltan, bere gelan sartu, ate guztiak itxi, eta jotzen hasi zen. Ez hiru aldiz, jo eta su baizik, garrasi batean gauzak eskatzen:

—Arroza nahi dut! Eta fufua! Oilasko errea eta txokolatea! Txokolate asko! Eta goxokiak! Eta piruletak! Eta litxarreriak! Eta patatak!

Ijapa lo si ile Iya, na loji ilu nla na.

Nigbati o de, o lo si ile o si ti gbogbo ilekun mo ara re, o si bere si ni lu ilu naa. Sugbon ki se nigbameta ni olu ilu na. Olu ilu na ni aiyi mo iye igba o si bere si ni pa ariwo wipe:

—Mo fe iresi!, ati fufu!, ati adie, ati chocolate! chocolate pupo! ati sweets! Orishirishi ni ohun fe.





Bat-batean, dardaraka hasi zen danborra. Dar-dar-dar eta, gero, pum! Leherketa! Eta, orduan, Masquerade bat agertu zen, plaf! Ekintza zintzoen espiritua!

—Hori ez da zurea! —oihukatu zion dortokari.

—Arrazoia, jauna —dortokak, apal-apal.

—Badakizu zer egin behar duzun, ezta?



Nigbana ni, Ilu na bere si ni gbon o si fa ya. Pum! Egun si jade plaf! *Masquerade kan* o si fe farahan, emi awon ise tito.

—Iyen kii se tire! —si so fun Ijapa.

—Oda o, sir —ijapa so pelu irele.

—O mo ihun ti o ni lati se, se o mo?

Ijaka dortokak ostutakoa itzuli behar izan zuen, eta barkamena eskatu, oyotar guztien aurrean:

—Barkatu, andrea, ez dut berriro egingo. Barkatu, Iroko, ez dut lagunik galdu nahi.

Eta, orduan, plaf!, Masqueradea etorri bezalaxe joan zen!

Eta, hala bazan ez bazan, dortokak ikasi zuen…

Bat, ez osten.

Bi, zekena ez izaten.

Hiru, zeukanaz pozten.

Eta lau, ahal dela, ingurukoei laguntzen.



Ijapa ni lati da ilu ti o ji pada. O si toro fun idariji ese ti o se lowo gbogbo ara ilu Oyo:

—E dariji mi, anti, mi ko ni se be mo.

E ma binu, Iroko, Emi ko fẹ lati padanu awon orẹ.

Ati lehinna, plaf! Masquerade ti lo!

Ni igbana, ni ijapa ko eko wipe:

Ọkan, kii se lati jale.

Ekeji, ki ako gbodo ni ojukokoro.

Elekẹta, a si tun gbodo ni itelorun pelu ohun ti a ba ni.

Ati elekerin, a gbodo ma se iranlowo fun gbogbo awon ti o wa ni ayika wa ti o nilo iranlowo.



MUNDUENEA
MUNDUKO IPUINEN ETXEA

*Munduenea. Munduko ipuinen etxea*n hamar ipuin batu ditugu, gure artean bizi diren kultura ezberdinetako hiztunei jasota. Bilduma 6-10 urte bitarteko umeei zuzenduta dago. Inguruko kultura eta hizkuntza aniztasunak dakarkigun aberastasuna ipuinen bidez erakustea da helburua. Jatorrizko hizkuntzan eta euskaraz entzun eta irakurri ahal izango dituzu. Munduko ipuinen etxera sartu nahi?

Munduenea. Munduko ipuinen etxea je apapo itan mewa to je asa to farawan ni agbegbe wa, eyi ti o to si awon okurin ati obirin ti won je awon Omo odun 6-10. Ni ipa itan yi o fi wan nipa iloro asa ati ede wa. Wo inu ile itan ko de sawari wan ni ede ijile ati ede Basque.




MUNDUENEA
HITZA HITZ
A PALABRA É A PALABRA


MUNDUENEA
DEABRUAREN ZUBIA
EL PONT DEL DIABLE


MUNDUENEA
GIZON ABERATSA
ایک امیر آدمی


MUNDUENEA
KATU ARTISTAK
LES CHATS ARTISTES


MUNDUENEA
EID AL FITR-EKO OPARIA
هدية عيد الفطر


MUNDUENEA
MATSU, ITSASOKO JAINKOSA
妈祖，海上之神


MUNDUENEA
ZORIONTSU IZATEKO GAKOA
CAABI NGIR AM MBËKTE


MUNDUENEA
TXILIBITU MAGIKOA
FLUIERAȘUL MAGIC


MUNDUENEA
CAIPORA



9 788419 063144

LabayruFundazioa